

SOPELAKO V. ARGAZKI LEHIAKETA 2025

Gaia: Musika, Kirola edo Natura



Argazkia: Manu Barreiro

[HTTPS://UKFOTO.FOTOGENIUS.ES/](https://ukfoto.fotogenius.es/)

ABUZZTURAREN 1ETIK ITRAILAREN 5ERA



V. SOPELA KOSTA FEST 2025 ARGAZKI LEHIAKETA:

Lehiaketak EHATEren babesarekin du: AGZ46-07 eta EHATEk antolatutako Argizaiola sarietarako sailkatzailea izango da

<https://federacionfotovasca.org/argizaiola/bases-argizaiola>

Lehiaketa hau Sopelako Udalarekin lankidetzan garatzen da.

PARTE HARTZAILEAK

Argazkilari afizionatu eta profesional guztiek parte har dezakete lehiaketan.

GAIA

Natura, Kirola edo Musika

Teknika librea izango da, kontuan izanik argazkiak euskarri eta material ezberdinetan erreproduzituko direla eskatutako kalitatearekin

Ez dute testua, sinadura, ur-marka edo markoa bezalako elementurik izan behar

KATEGORIA OROKORRA

Lehiakide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake, eta banaka baloratuko dira.

Ez dira onartuko I.A.k osorik edo zati batean sortutako obrak. Argazkien jatorrizko RAW artxiboak eskatu ahal izango dira, egiaztatzeko.

Antolakuntzak arau hau betetzen ez duen edozein irudi baztertzeko eskubidea izango du. Horretarako, eskura dituen baliabide guztiak erabili ahal izango ditu, teknologikoak izan edo ez. Hala badagokio, saria jaso ondoren ere deskalifikatu ahal izango du irudia.

Argazkietan ezin dira agertu ezaguterrazak diren adingabeak.

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarriak onartuta, erabiltzaileak bere datu pertsonalak egiazkoak eta egiaztagarriak direla baieztatzen eta ziurtatzen du.

Parte-hartzaileak adierazten eta bermatzen du bera dela lanen egile bakarra eta lehiaketan aurkeztutako lanen gaineko egile-eskubide guztien titular bakarra.

Halaber, parte-hartzailearen erantzukizuna izango da hirugarrenentzako eskubiderik ez egotea, bai eta lehiaketara aurkeztutako lanen irudi eskubideak erreklamatzeko ere.

FORMATUA

- JPG formatuko fitxategiak.
- Alderik luzeena, 4000 pixeleko neurriarekin. 300ppp
- Fitxategiaren gehienezko pisua: 3Mb

IZEN-EMATEA ETA BIDALKETAK

Izen-ematea doakoa da. Internet bidez bakarrik, FOTOGENIUS webgunearen bidez (<https://ukfoto.fotogenius.es/>)

INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Webgunearen edo posta elektronikoaren bidez: ukfotoelkartea@gmail.com

ONARTZEKO EPEA

2025eko abuztuaren 1etik irailaren 5era arte.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

2025eko irailaren 15a.

EMAITZAK JAKINARAZTEA

2025eko irailaren 17a.

SARIAK BANATZEKO EKITALDIA

2025eko irailaren 21a.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia argazkilaritzan izen handia duten pertsonak osatuko dute.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
- Emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira.

SARIAK:

Lehenengo saria: 350 €

Bigarren saria: 200 €

Hirugarren saria: 100 €

Tokikorik onena: 100 €

Parte-hartzaile berak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso. Lokalik onenak sailkapen orokorreko lehenengo hiru postuetako bat betetzen badu, sarietako bat eskuratu beharko du.

Adingabe batek saria jasotzen badu, horren zenbatekoa jaso ahal izateko adingabe horren legezko tutorearen bitartez egin beharko da.

SARI BANAKETA

Sari banaketa Sopelan izango da, 2025eko irailaren 21ean. Leku eta ordu zehatzak jakinaraziko dira.

ERAKUSKETA

Epaimahaiak ondoen sailkatutako lanekin (24 argazki) erakusketa bat egingo da, lekua eta data zehazteke.

Erakusketako argazkien formatu fisikoa Sopelako Udalarena izango da

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea.

Sortzen den edozein gorabehera, haietan agertzen ez bada, antolatzaileek konponduko dute.

Irudien jabetza egilearena izango da, baina Sopelako Udalak bere erabilera eskubidea erabili ahal izango du, betiere irudiaren egilea izendatzen badu, eta beti ere lehiaketaren edo Sopela Kosta Fest-en beraren sustapenarekin zerikusia duten ekintzetan.

Antolatzaileek eskubidea dute lehiaketatik kanpo uzteko argazkiak, indarrean dagoen legediaren kontrakoak badira.

Emandako datuak konfidentziasunez tratatuko dira.